

AKTA

UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko ohiko batzarra bildu da:

Eguna: 2023/04/26

Ordua: 18:00ak

Tokia: Udaletxeko Areto Nagusian

Bertaratuak:

Alkatea: Jexux Leonet Elizegi

Zinegotziak:

EHBildu

Eneritz Arbelaitz Sarasti

Agustin Lekuona Irastorza

Jon del Olmo Larrañaga

Miren Yosune Cousillas Aramendi (ondoren jasotako unean bertaratu da)

Josu Delgado Rozas

Olga Maria Aranzazu Leibar Mendarte

Enekoitz Marcos Azpiroz

Haizea Saez de Eguilaz Perez

Goratz Gezala Etxeberria

Miren Arrosa Lizaso Azpiroz

EAJ-PNV

Rafael Bergareche Urdampilleta

Iñaki Arbelaitz Michelena

Yon Goikoetxea Labaka

Janire Michelena Lecuona

Idazkaria:

Oihane Mallagaray Revilla

Ezin etorria adierazi dute:

EHBildu

Olaia Lasa Olaziregi

EAJ-PNV

Maitane Larruskain Aguirre

AZTERGAIK/LABURPENA:

Hartutako akordioak

- 2023ko martxoaren 29an egindako batzarraren akta onartu zen.
- Grupo Oarso taldearen Espainiako estatuan migratzaileen ezohiko erregularizazioari buruzko mozioa, EHBildu udal taldeak bereganatutakoa eta bi udal-taldeen oniritzia zuena, onartu zen.
- 2022-2024 epeko dirulaguntzen plan estrategikoaren 2. Aldaketa onartu zen.
- Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa arautzeko ordenantzari hasierako onarpena eman zitzaion.

5. 2023-24 ikasturtean euskara ikasteko eta hobetzeko dirulaguntzak arautzeko oinarri bereziak onartu eta deialdia egitea erabaki zen.
6. Energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioen aldeko udal-jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko eta aprobetxamendu bereziagatiko tasa ezartzea eta antolatzea erabaki zen.
7. Energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioen aldeko udal-jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko eta aprobetxamendu bereziagatiko tasa arautzen duen Ordenantza Fiskalaren Proiektua behin-behinekoz onartu zen.
8. Oiartzungo udalerrian hiri-garbiketako eta etxe hondakinen bilketa eta garraioko zerbitzua lehen aldiz luzatzea erabaki zen.
9. Elorsoro Kiroldegia, Madalensoro Pilotalekua eta udako igerilekua udal instalazioen emakida kontratuan oreka ekonomikoa berrezartzeko eskaera, 2022ko 4. hiru-hilabeteari dagokiona, mahai gainean geratu zen.
10. Altamira baserriaren albotik pasatzen den Otsakane herri-bidearen (383-384) trazadura desplazatzeko lur trukaketa gauzatzeko 45 m. luzera eta 60,50 m² duen zatiaren desfektazioa hasieraz onartu zen eta lur trukaketaren proposamenari aldeko iritzia eman zitzaion.
11. Oarsoaldea S.A. eta Oiartzungo Udalaren arteko hitzarmena, elkartearen 2023 urteko gestio planari buruzkoa, onartu zen.
12. Oiartzungo kultur eragileen saretzea aktibatzeke, kultur eragileen eta kulturzaleen bilgunea osatzeko eta beraien arteko elkarlana bideratzeko Oiartzungo Udala eta Kulturaz Bete Arte elkartearen arteko lankidetzahitzarmena onartu zen.
13. Soinuena Fundazioa eta Oiartzungo Udalak sinatutako lankidetzahitzarmenaren modifikazioa onartu zen.
14. Musika-irakaskuntza elkarlanean sustatzeko, Oiartzungo Udala eta Ibergain Musika Eskolaren arteko lankidetzahitzarmena onartu zen.
15. 2023 ekitaldiko 3. kreditu aldaketa onartu zen.

Berri emateak

16. Hainbat organoen jardueraren jarraipena egin zen.
17. Ez zen eskaririk ez eta galderarik egin.

Esan-eginak eta erabakiak

- I -

AURREKO BATZARRARI DAGOKION AKTAREN ONARPENA.

2023ko martxoaren 29an egindako bilkuraren akta onartu zen aldeko 14 botorekin, hau da, aho batez.

Josune Cousillas Aramendi zinegotzi andrea une honetan bertaratu da.

- II -

GRUPO OARSO TALDEAREN ESPAINIAKO ESTATUAN MIGRATZAILEEN EZOHIKO ERREGULARIZAZIOARI BURUZKO MOZIOA, EHBILDU UDAL TALDEAK BEREGANATUTAKOA.

#Erregularizazioa orain kanpainaren barruan, Grupo Oarso taldeak Espainiako estatuan migratzaileen ezohiko erregularizazioari buruzko mozioa aurkeztu zuen udal erregistroan (2023/04/13an 2623 sarrera erregistroa). EHBildu udal taldeak aipatu mozioa bereganatu du, aldez aurretik EAJ/PNV udal taldearekin gaia aztertu eta hark ere oniritzia emanda, Udal Osoko Batzarrean aztertua izan dadin. Honela dio:

“OIARTZUNGO Udal Osoko Batzarra.

Adierazpen instituzionalaren proposamena

GRUPO OARSO TALDEA

Herriko eragile gisa eta #Erregularizazioa Orain mugimenduaren parte gisa, honako hau adierazten du:

- Azken zenbatespenen arabera, Espainiako estatuan administrazio-egoera irregularrean dauden 500.000 migratzaile inguru biziko lirateke, eta horietatik heren bat adingabeak izango lirateke.
- Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei edo atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoa egoitza-baimena lortzeko aurreikusitako irizpideak oso murriztaileak dira.
- Murrizketa horrek zaugarritasun-egoera larriak eragiten dizkie hura pairatzen duten pertsoneri, eta horrek eragina du pertsona horien gizarte-bazterketan.
- Gizarte-bazterketa horrek eragina du hirian eta gizartean, oro har, eta ekarpen ekonomiko, fiskal eta jasangarri handia galtzen du funtsezko sektore produktiboetan, bereziki beharrezkoa gaur egungo krisi sozial eta ekonomikoaren testuinguruan.- ELGaren ministro bilera batean joan den udal Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazioetako ministro José Luis Escrivák adierazi zuenez, gertatzen ari dena, irregulartasun-aldi hain luzeekin, batzuetan zazpi edo zortzi urtera arte, ekonomia informal bat sortzen ari da, sektore askoren lan-baldintzen eta soldaten gainean beheranzko presioa egiten duena.
- 2022ko abuztuan, Estatuko Gobernuak Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei edo atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamenduaren erreforma bat onartu zuen, lan-baimenak emateko izapideak malgutzeko, ekonomiaren eta lanpostu duin eta kalitatezkoen hazkundera eragiteko helburuarekin, baina gaur egun Espainiako

estatuan administrazio-egoera irregularrean bizi diren 500.000 pertsonen egoera konpontzen ez dutenak.

- Ezohiko erregularizazioaren mekanismoa Europar Batasunean erabili denez, 1996-2008 aldian 43 aldiz 17 estatu kidetan, horietako sei Espainiako estatuan.
- Ezohiko erregularizazio berrienak Portugalen eta Italian egin dira 2020an, COVID-19aren pandemian, eta Nazio Batuetako migratzaileen Giza Eskubideen aldeko Errelatore Bereziak neurri hori babesten du.

Arrazoi horiengatik eta Udalak herrian bizi diren pertsonen justizia sozialarekiko duen konpromisoarekin bat etorriz, adierazpen instituzionalarentzat eduki hau onartu du Udalbatzak:

Lehenengoa. #Erregularizazioa Orain mugimendua babestea, Herri Ekimen Legegilerako (HEL) 700 mila sinadura baino gehiago biltzeagatik, Espainiako Estatuan migratzaileen ezohiko erregularizazioa dela eta; dagoeneko Kongresuan dago, Lan eta Gizarteratze Batzordean.

Bigarrena. Diputatuen Kongresuan lege-proposamenaren hurrengo testu artikulatua aldatzeko eskatzea.

ATZERRITARRENTZAKO EZOHIKO ERREGULARIZAZIOA EZARTZEN DUEN LEGEA

Artikulu bakarra: atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren lehenengo xedapen iragankorra aldatzea.

Aldatu egiten da atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren lehenengo xedapen iragankorra, eta honela idatzita geratzen da:

“Lehen xedapen iragankorra. Espainian dauden atzerritarren erregularizazioa. Gobernuak 6 hilabetetako prozedura ezarriko du Errege-Dekretu bidez, 2021eko azaroak 1a baino lehen espainiar lurraldean zeuden atzerritarren erregularizatzeko.”

Hirugarrena. Oiartzungo Udalak migratzaileen eskubide eta askatasunetikiko eta hiri eta gizarte bidezkoago, inklusiboago, anitzago eta demokratikoago baten aldeko borrokarekiko duen konpromisoa berrestea.

Laugarrena. Plenoaren erabakia #Regularizacion Orain (#RegularizaciónYa) mugimenduari, Diputatuen Kongresuari eta Estatuko Gobernuari helaraztea.”

Ondoren mozioa bozkatu egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzia		

Mozioa aho batez onartu da aldeko 15 botorekin.

2022-2024 EPEKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 2. ALDAKETA.

Udalbatzak 2021eko azaroaren 24ean egindako bilkuran, 2022-2024 ekitaldietako dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea erabaki zuen. Aipatu erabakiaren baitan, Plana udal web orrian argitaratu zen.

Kultura teknikariak txostena idatzi du non adierazten duen Plana aldatu beharra dagoela, 4. lerro estrategikoan bi programa txertatzeko: Kulturaz Bete Arte Kultur Elkartearekin lankidetzaz kultur bilgunean osatzeko eta Kantagiltza elkartearekin lankidetzaz euskal kulturaren transmisioa sustatzeko.

Dirulaguntza hauek ordaintzeko, 40.000 euroko eta 10.000 euroko izendapenak egin dira Oiarzungo Udalaren 2023 ekitaldiko aurrekontuko 1 0801 481 334 00 18 2023 eta 1 0801 481 334 00 19 2023 diru atalen kontura, hurrenez hurren.

Halaber, idazkariaren eta kontu-hartzailearen txostenak jaso dira espedientean.

Beraz, Ogasun, Kontu Berezien eta hainbat gaien Batzordearen diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak honako akordioa hartu du:

Lehena.- 2022-2024 ekitaldietako dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzea eta kulturaren sustapenari dagokion 4. lerro estrategikoan bi programa hauek txertatzea:

4. lerro estrategikoa: Kultur dinamizazioa.	
Programaren deskribapena	Kulturaz Bete Artarekin lankidetzaz hitzarmena kultur bilgunea osatzeko.
Helburua	Kultur eragileen eta kulturzaileen bilgunea osatzea eta haien elkarlana bideratzea, kultura eta kulturzaletasuna bultzatzea, kultur espresioak elkarlanean antolatzea eta bultzatzea, kulturarekiko jarreraz hausnarketa autokritikoa bideratzea eta euskal kulturaren transmisioa sustatzea.
Hartzaileak	Kulturaz Bete Arte Kultur Elkartea
Dirulaguntza mota	Itunpekoa
Zenbatekoa (2023)	40.000,00 €
Aurrekontu aplikazioa (2023)	1 0801.481.334.00.18.2023
Adierazleak	Urtean zehar gauzatutako proiektuak eta horien irisgarritasuna. - Kultur elkarte guztien eta Udalaren artean kultura sustatzeko ideietatik eratorritako urtean zehar antolatutako ekintzen parte hartzaile kopurua (antolatzaileak, ikusleak,...) - Genero eraginaren adierazleak.
Ekintza plana: oinarri arautzaileak izan beharreko oinarritzko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia.	Indarraldia: urtea Arloan dauden dirulaguntzak arautzen dituzten Araudiek eta oinarriek horien xedea eta helburuak, hartzaileak eta parte hartze baldintzak, dirulaguntza - emateko kontzeptuak eta irizpideak, diru-laguntzen justifikazioa, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa, diruz lagundutako ekintzen justifikazioa eta hartzaileen betebeharrak jasotzen dituzte.

4. lerro estrategikoa: Kultur dinamizazioa.	
Programaren deskribapena	Kantagiltza elkartearekin hitzarmena euskal kulturaren transmisioa sustatzeko.
Helburua	Euskal kulturaren transmisioa sustatzea eta musikari sortzaileen lanak plazaratzea. Horrez gain, euskal kantagintzari buruzko hausnarketa, ezagutza eta zabaltzea.

Hartzaileak	Kantagiltza Kultur Elkartea
Dirulaguntza mota	Itunpekoa
Zenbatekoa (2023)	10.000,00 €
Aurrekontu aplikazioa (2023)	1 0801.481.334.00.19.2023
Adierazleak	- Urtean zehar gauzaturako proiektuak eta horien irisgarritasuna. - Sustaturako proiektuetan, ekintzetan, parte hartzaile kopurua (antolatzaileak, ikusleak,...) - Genero eraginaren adierazleak.
Ekintza plana: oinarri arautzaileak izan beharreko oinarritzko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia.	Indarraldia: urtea Arloan dauden dirulaguntzak arautzen dituzten Araudiek eta oinarriek horien xedea eta helburuak, hartzaileak eta parte hartze baldintzak, dirulaguntza - emateko kontzeptuak eta irizpideak, diru-laguntzen justifikazioa, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa, diruz lagundutako ekintzen justifikazioa eta hartzaileen betebeharrak jasotzen dituzte.
Programaren deskribapena	Kantagiltza elkartearekin hitzarmena euskal kulturaren transmisioa sustatzeko.

Bigarrena.- Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal web orrian argitaratzea.”

Ondoren botazioa egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Gaia aho batez onartu da aldeko 15 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- IV -

ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA ARAUTZEKO ORDENANTZAREN HASIERAKO ONARPENA.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikuluko 7. atalak hau xedatzen du: “Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zizkien neurriak proposatuko dira.”

Artikulu hori garatzen duen 179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koak, Euskadiko toki erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, zioen azalpenean, argi adierazten du hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioak izaera irekia daukala. Udal bakoitzari tarte zabala ematen zaio, hizkuntza-normalizazioaren arloko erantzukizuna hoberen irizten dion moduan gauzatu dezan, baina beti gutxieneko irizpide batzuk betez.

Eta aipatu Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian jasotakoaren baitan, udal honek bere metodologia propioa ezartzea erabaki du, eta horretarako, bere eduki eta irismen orokorragatik, izaera arauemailea duen xedapen batean baino ezin da gauzatu, hau da, udal ordenantza batean. Beraz, herriko plan eta proiektuen jarraipen sistematikoagoa egitea eta egoera soziolinguistikoan eragina izango duten plan eta proiektuei eragin linguistikoaren ebaluazioa (ELE) egingo zaiela ziurtatzeko helburuarekin idatzi da Ordenantza.

Espedientean Euskara teknikariaren txostena jaso da, Genero eraginaren ebaluazioa, Hizkuntza eraginaren txostena, eta udal idazkari eta kontu-hartzailearen aldeko txostenak. Horretaz gain, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 133. artikuluan aurreikusitako aurretiazko kontsultak burutu dira, ekarpenik jaso gabe.

Honenbestez, honako akordioa hartu du Udal Osoko Bilkurak:

Lehena.- Hasierako onspena ematea Oiartzungo udalerrian eragin linguistikoaren ebaluazioa arautzeko ordenantzari, eranskinean jasota dagoena.

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea, hogeita hamar egun balioduneko epean, administrazio-espediente hau, erreklamazio edo iradokizunen ondorioetarako, hain zuzen ere iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita. Epe horretan interesatu guztiek Udal bulegoetan espedientea aztertu ahal izango dute eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako lekuetan eta moduetan.

Jendeari erakusgai egoteko epea igarotzen bada inolako erreklamaziorik edo oharpenik jaso gabe, behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

Ondoren botazioa egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Gaia aho batez onartu da aldeko 15 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- V -

**2023-24 IKASTURTEAN EUSKARA IKASTEKO ETA HOBETZEKO DIRULAGUNTZAK
ARAUTZEKO OINARRI BEREZIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA EGITEA.**

Oiartzungo Udalaren lerro estrategikoen barruan euskararen normalizazioa jasotzen da eta bere sustapenerako, besteak beste, euskara ikasteko eta hobetzeko dirulaguntza lerroa landu da.

Aipatu dirulaguntza hau emateko, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina, martxoaren 16ko 1/2023ko Dekretu bidez onartutakoa, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza eta 2022-2024rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa kontuan hartuta, euskara teknikariak 2023an euskara ikasteko eta hobetzeko, norgehiagoka bidezko prozeduraren baitako dirulaguntzen oinarri arautzaile bereziak idatzi ditu.

Halaber, gaiari buruz egindako txostenean oinarriok onartu eta deialdia egitea proposatu du.

Gaia 2023ko martxoaren 23ko Euskara Batzordean aztertu da eta proposamenak aldeko diktamena jaso du. Beraz, Udaltzak honako akordioa hartu du:

Lehena.- 2023an euskara ikasteko eta hobetzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile bereziak onartzea eranskinean jasota dauden moduan.

Bigarrena.- Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 51.000,00 euroko izendapena egin da, Oiertzungo Udalaren 2023 urteko aurrekontuko 1 0701.480.335.00.01 2023 diru-atalaren kontura (A 689-2023)

Hirugarrena.- Oinarriok eta deialdia BDNS plataformaren bidez eta udal web orriaren bidez jendaurrean jarriko dira eta laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.”

Ondoren botazioa egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Gaia aho batez onartu da aldeko 15 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- VI -

ENERGIA ELEKTRIKOA, GASA, URA ETA HIDROKARBURUOK GARRAIATZEKO INSTALAZIOEN ALDEKO UDAL-JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOAGATIKO ETA APROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO TASA EZARTZEA ETA ANTOLATZEA.

Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 20. artikuluan jasotzen da Gipuzkoako udalerriek tasak ezarri ahal izango dituztela udalaren herri jabariaren erabilera pribatiboaren edo probetxamendu bereziaren edozein kasutan, eta besteak beste, k) atalean jasotzen den moduan, linea elektrikoak, hodiak eta galeriak argindar, ur, gas edo bestelako isurkinak garraiatzeko, bai eta lineen zutoinak, kablea, palomilak, amarratze, banaketa eta erregistro kaxak, transformadoreak, errailak, baskulak, salmenta automatikorako aparailuak edota kaleetan edo udalaren herri jabarik bestelako terrenoetan ezartzen diren antzeko elementuak.

Horrela, Oiertzungo Udalak “energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioen aldeko udal-jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko eta aprobetxamendu bereziagatiko tasa arautzen duen zerga ordenantza” onartu zuen 2018an. Halaber, Euskal Autonomia erkidegoko Auzitegi Nagusiak 2019/12/30ean eta Auzitegi Gorenak 2021/12/15ean emandako epaiek eragina izan zuten aipatu Ordenantzaren eta horrek Ordenantza ez aplikatzera eraman zuen Udala.

Orain, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko Foru Araudiaren baitan eta Auzitegi Gorenaren azken doktrinara egokituta, energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioen aldeko udal-jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko eta aprobetxamendu bereziagatiko tasa arautzeko udal Ordenantza Fiskala prestatu da bere onarpenerako.

Espedientean kalkulu-metodoari eta tarifei buruzko txosten tekniko ekonomikoa erantsi da, bai eta kontu-hartzailearen eta idazkariaren txostenak ere. Era berean, genero eraginari eta hizkuntza eraginari buruzko txostenak jaso dira.

Horrenbestez, Ogasun, Kontu Berezien eta hainbat gaien Batzordearen diktamenarekin adostasunean, Udaltzazak honako akordioa hartu du:

Energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioen aldeko udal-jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko eta aprobetxamendu bereziagatiko tasaren ezarpenaren hasierako onarpena.

Ondoren botazioa egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Gaia aho batez onartu da aldeko 15 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- VII -

ENERGIA ELEKTRIKOA, GASA, URA ETA HIDROKARBUROAK GARRAIATZEKO INSTALAZIOEN ALDEKO UDAL-JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOAGATIKO ETA APROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN PROIEKTUA BEHIN-BEHINEKOZ ONESTEA.

Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 20. artikuluan jasotzen da Gipuzkoako udalerriek tasak ezarri ahal izango dituztela udalaren herri jabariaren erabilera pribatiboaren edo probetxamendu bereziaren edozein kasutan, eta besteak beste, k) atalean jasotzen den moduan, linea elektrikoak, hodiak eta galeriak argindar, ur, gas edo bestelako isurkinak garraiatzeko, bai eta lineen zutoinak, kablea, palomilak, amarratze, banaketa eta erregistro kaxak, transformadoreak, errailak, baskulak, salmenta automatikorako aparailuak edota kaleetan edo udalaren herri jabarik bestelako terrenoetan ezartzen diren antzeko elementuak.

Horrela, Oiartzungo Udalak “energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioen aldeko udal-jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko eta aprobetxamendu bereziagatiko tasa arautzen duen zerga ordenantza” onartu zuen 2018an. Halaber, Euskal Autonomia erkidegoko Auzitegi Nagusiak 2019/12/30ean eta Auzitegi Gorenak 2021/12/15ean emandako epaiek eragina izan zuten aipatu Ordenantzaren eta horrek Ordenantza ez aplikatzera eraman zuen Udala.

Orain, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko Foru Araudiaren baitan eta Auzitegi Gorenaren azken doktrinara egokituta, energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioen aldeko udal-jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko eta aprobetxamendu bereziagatiko tasa arautzeko udal Ordenantza Fiskala prestatu da bere onarpenerako.

Espedientean kalkulu-metodoari eta tarifei buruzko txosten tekniko ekonomikoa erantsi da, bai eta kontu-hartzailearen eta idazkariaren txostenak ere. Era berean, genero eraginari eta hizkuntza eraginari buruzko txostenak jaso dira.

Horrenbestez, Ogasun, Kontu Berezien eta hainbat gaien Batzordearen diktamenarekin adostasunean, Udaltzarak honako akordioa hartu du:

Lehena.- Energia elektrikoaren, gasaren, uraren eta hidrokarburoen garraiorako instalazioen aldeko udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko eta aprobetxamendu bereziagatiko tasak arautzen duen ordenantza fiskalaren hasierako onarpena. Eranskinean jaso da.

Bigarrena.- Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udal honetako iragarki-oholean, udalaren webgunean eta egunkari batean argitaratzea, zabalkunderik handiena dutenen artean, 30 egun balioduneko epean, Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, herritarrek egoki irizitako erreklamazioak eta/edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena.- Aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunei buruzko txostena egingo du idazkariak, eta Osoko Bilkurari aurkeztuko dio dagokion baiespen- edo ezespren-proposamena eta ordenantza behin betiko onartzeko proposamena.

Laugarrena.- Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordenantza behin betiko onartutzat joko da.

Bosgarrena.- Behin betiko onespeneren erabakia edo, hala badagokio, behin-behinekoa automatikoki behin betikotzat jotzen dena, ordenantzaren testuarekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Ondoren botazioa egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzia		

Gaia aho batez onartu da aldeko 15 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- VIII -

OIARTZUNGO UDALERRIAN HIRI-GARBIKETAKO ETA ETXEKO HONDAKINEN BILKETA ETA GARRAIOKO ZERBITZUA. 1. LUZAPENA.

Oiartzungo Udaltzarak 2020ko maiatzaren 27an Oiartzungo udalerrian hiri-garbiketa eta hiriko hondakinen bilketa eta garraioko zerbitzua emateko kontratua esleitu zion FCC MEDIO AMBIENTE, S.A. enpresari, hiru urteko iraupen epearekin, 2020ko uztailearen 1etik 2023ko ekainaren 30a arte.

Kontratuaren exekuzio-epari dagokionez, kontratua arautzen duten baldintza administratibo berezien agirian jasotzen da urte naturaletan luzatu ahal izango dela, kontratuaren iraupen osoak, luzapenak barne, ezingo duelarik bost urte baino handiagoa izan. Halaber, jasotzen da luzapena kontratugilearentzat nahita nahiezkoa izango da, beti ere kontratuaren iraupen epea bukatu baina bi hilabete lehenagotik adierazten bada.

Udal arkitekto teknikoak eta Mendi eta Ingurumen teknikariek lehenengo luzapenaren aldeko txostena egin dute eta beste hainbeste egin du Kontratazio teknikariak.

Horregatik guztiagatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak aurreikusten duen prozedura jarraiki eta honek kontratazio-organoari esleitzen dizkion eskumenekin bat, 2023ko apirilaren 26an Obra eta Zerbitzuak Batzordearen aldeko irizpena jaso eta gero, Udalbatzak honako akordioa hartu du:

Lehena.- Onartzea Oiartzungo udalerrian hiri-garbiketako eta hiriko hondakinen bilketa eta garraioko zerbitzu kontratuaren luzapena, beste urtebetez, 2023ko uztailaren 1etik 2024ko ekainaren 30a arte, baldintza eta ezaugarri berdinetan.

Luzapena nahitaezkoa izango da esleipendunarentzat, kontratua amaitu baina bi hilabete lehenago ebatzi denez, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak 29.2. artikuluan xedatzen den moduan.

Bigarrena.- Gastu hori Udalaren aurrekontuko partida hauen kontura kontabilizatuko da:

- 1 0501.227.162.10.04 2023 (2978) – AD 1041 – 2023.
- 1 0501.227.162.10.04 2023 (2978) – AD 1043 – 2023.
- 1 0501.227.162.10.04 2023 (2978) – AD 1045 – 2023.
- 1 0501.227.163.00.01 2023 (2982) – AD 1047 – 2023.

Ondoren botazioa egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	11	EHBildu
Aurka		
Abstentzioa	4	EAJ/PNV

Gaia onartu egin da aldeko 11 botorekin (EHBildu) eta 4 abstentziorekin (EAJ/PNV).

- IX -

ELORSORO KIROLDEGIA, MADALENSORO PILOTALEKUA ETA UDAKO IGERILEKUA
UDAL INSTALAZIOEN EMAKIDA KONTRATUAN OREKA EKONOMIKOA
BERREZARTZEKO ESKAERA (2022KO 4. HIRU-HILABETEA).

Gaia mahai gainean geratu da.

- X -

ALTAMIRA BASERRIAREN ALBOTIK PASATZEN DEN OTSAKANE HERRI-BIDEAREN
(383-384) TRAZADURA DESPLAZATZEKO LUR TRUKAKETA GAUZATZEKO 45 M.
LUZERA ETA 60,50 M² DUEN ZATIA DESAFEKTATZEKO HASIERAKO ONARPENA ETA
LUR TRUKAKETAREN PROPOSAMENAREN ALDEKO IRITZIA.

2023ko otsailaren 10ean interesdunak, ordezkari bidez, eskaria aurkeztu zuen Otsakane herri-bidearen trazadura aldatzeko, Altamira baserriaren parean, hain zuzen ere 1,50 metroko zabaleran. Sustatzaileak

trazadura aldaketa justifikatzen duen idatzia, argazkiak eta sekzioen plano konparatiboa ere aurkeztu ditu.

Udal mendi eta ingurumen teknikariak egindako txostenaren eta aukera eta egokitasun txostenaren arabera, Otsakane herri-bidea (383-384) Oiartzungo Herri Bideen Inbentarioan jasota dago eta 05001 fitxa zenbakia du. Altamira baserriaren albotik pasatzen den tartean trazadura aldaketa justifikatuko luketen arrazoi nagusiak honakoak dira:

- Bidearen desplazamenduak Altamira baserriaren birgaitzea erraztu eta hobetzen du eta bertako bizilagunen bizigarritasun baldintzengan hobekuntza ekarriko du. Izan ere, baserriaren behe solairua, egungo egoeran, bidea baino beherago kokatzen da eta bere irteerak zuzen zuzenean bidera ematen du, inolako babesik gabe. Bestalde, Altamira baserriaren fatxadaren hezetetasunak saihestu ahal izango dira, kapilaritateagatik gora egiten baitute.
- Horrezaz gain, udalaren ikuspuntutik, herri-bidea zabaltzeko aukera ematen du, nahiz eta azalera gutxi izan (60,50 m² galdu eta 89 m² irabazi), bertatik igarotzen den trafikoaren segurtasun baldintzak hobetzen ditu, aurrerantzean ez delako egongo baserriaren kontra jotzeko arriskurik edo baserriatik ateratzen den norbait harrapatzeko arriskurik, eta eraikinaren kontrako ahokatzeko eta parean ematen den koxkorra bigundu egingo da.

Horrenbestez, Altamira baserriaren jabearen eta Udalaren artean lur-trukaketa egitea badagokio. Lurzati pribatuari gehitutako 60,50 m²ak Udalarekin trukatzeko proposatzen da, aldatutako trazaduraren mesedetan lagatako 89 m²ren truke.

Beraz, Udal honen jabetzakoa den eta Oiartzungo bide publikoen inbentarioan 05001 fitxan jasota dagoen Otsakane izeneko bide publikoaren 60,50 m²ko zatia kalifikazio juridikoa aldatzeko prozedura hasi behar da, ondoren Altamira baserriko lur-zatiarekin trukea egiteko. Trukatzekeo lurren xehetasunak honakoak:

1. LUR-TRUKAKETA EGITEKO OIARTZUNGO UDALAREN LUR-ZATIA

Oiartzungo Herri Bideen Inbentarioa: Otsakane bidea (05001 fitxa zk.). Altamira baserri parean.
Herri-bidea aurkitzen den finkaren erregistroko inskripzioa: ez dago inskribatuta.

Finka honetatik ondorengo zatia banandu behar da lur-trukaketa egiteko:

Azalera: 60,50 m². 45 m luzera x 1,50 m zabalera handiengan. Altamira baserriaren parean. Hegoaldeko erpinetik 15 metro hegoalderantz eta iparraldeko erpinetik 15 metro iparralderantz.

Mugak: Mendebalderantz Altamira baserriko lurrekin. Gainontzeko mugak Otsakane herri-bidearekin.

Katastroko datuak: Herri-bidea

2. LUR-TRUKAKETA EGITEKO PARTIKULARREN LUR-ZATIA

Jabea: Altamira-Baja

Finkaren erregistroko inskripzioa: Finka 149. Tomoa, 1370. Liburua, 322. Folioa, 7. Inskripzioa, 22.

Finka honetatik ondorengo zatia banandu behar da lur-trukaketa egiteko:

Azalera: 89,00 m². 80 m luzera x 1,50 m zabalera handiengan. Altamira baserriaren parean. Hegoaldeko erpinetik 45 metro hegoalderantz eta iparraldeko erpinetik 20 metro iparralderantz.

Mugak: Mendebalderantz Otsakane herri-bidearekin. Gainontzeko mugak Altamira baserriko lurrekin.

Katastroko datuak: 7. poligonoko 327. lursaila.

Lur zatien balorazio ekonomikoa eginda, bien balioa 363 €-tan zehaztu da eta biak Oiartzungo Hiri Antolaketako Plan Orokorraren (GAO 2015/05/12) eremu berdinean daude eta hirigintza iguripen berdina dute. Beraz, lur-trukaketa parekatua da.

Espedientean idazkariaren txostena eta trukaketaren plano topografikoa jaso dira.

Guzti hau kontutan hartuta, Ingurumena eta Mendiak Batzordeak 2023ko apirilaren 17an egindako bilkuran emandako aldeko irizpenaren arabera, honako akordioa hartu du Udalbatzak:

Lehena.- Hasiera batean onestea ondasun higiezin honen kalifikazio juridikoaren aldaketa, eta jabari publikotik ondare ondasun izaerara pasatzea:

Herri bide zk.a	05001
Izena	Otsakane bidea
Puntua	Altamira baserriaren parean
Azalera/Luzera (metroak):	60,50 m ² (45 m. luze x 1,5 m., zabal zabalera handiengan)
Oharrak	Herri bidea

Bigarrena.- Aurreko erabakia jendaurrean edukitzea hilabetez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki oholean, interesdunek bidezkoztat jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.

Hirugarrena.- Otsakane herri-bidearen trazadura-aldaketa onartzea Altamira baserriaren albotik pasatzen den tartean.

Laugarrena.- Altamira baserriaren jabegokoa den aipatu lur-zatia, 89,00 m²koa, eta Udalarena den Otsakane herri-bidearen zehaztutako lur-zatia, 60,50 m²koa, trukatzeari oniritzia ematea.

Ondoren botazioa egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Gaia aho batez onartu da aldeko 15 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

Oarsoaldea, S.A.-ko Administrazio Kontseiluak urtero onartzen du urte bakoitzari dagokion gestio plana eta haren kostua. Oarsoaldea osatzen duten 4 udalen artean banatzen da kostu hori, udal bakoitzak programa bakoitzean duen partaidetza kontuan hartuz.

Udalek egiten dituzten ekarpenak subentzioak bihurtu ahal izateko, Oarsoaldea, S.A. enpresa eta Oarsoaldea osatzen duten 4 udalen artean lankidetza-hitzarmenak sinatzea ezinbestekoa da. Hitzarmen horietan jasotzen da burutuko diren programak eta udal bakoitzaren ekarpen osoa.

Beraz, 2023ko apirilaren 4an 2448 sarrera-erregistro zenbakia duen idatzi bidez, Oarsoaldea S.A.k Oiarzungo Udalarekin 2023an sinatu beharreko lankidetza hitzarmen proposamena aurkeztu zuen eta informazio honen baitan, kontu-hartzaileak txostena idatzi du honako xehetasunak jasotzen dituena:

Oiarzungo Udalaren kasuan, lankidetza hitzarmenean finkatutako gestio planaren kostuari dagokion partaidetza honakoa da:

LANKIDETZA HITZARMENA	OIARTZUN
Industria gara eta berri dadin sustatzea eta horri lotutako zerbitzuak	56.210,97
Pertsonei emandako arreta, aukera-sektorea	4.550,20
Gizarte-egoera ahulenerako kolektiboen gizarteratzea eta lan-munduratzeari sustatzea	158.465,24
Sektore turistikoa, eskualdearen erakargarritasuna duela eta potentziala duen jarduera. Merkataritza, aliatua	82.469,94
Hiri berriztapena eta mugikortasuna	30.317,22
Euskara	39.948,58
Kontsumo bulegoa	10.695,58
GUZTIRA	382.657,73

Bestalde, Lankidetza hitzarmen honetatik kanpo Udalak beste enkargu eta hitzarmen espezifikoak sinatuko ditu Oarsoaldea S.A.rekin ondorengo gai eta kopuruengatik:

HITZARMEN ESPEZIFIKOA	
EREITEN tailer okupazionala	18.650,13
Berpiztu poligonoak, Lezo eta Oiarzun	9.000,00
GUZTIRA ESPEZIFIKOAK	27.650,13

Hitzarmen espezifiko hauek urtean zehar bideratuko dira.

ENKARGUAK	
ASAP	21.749,25
GUZTIRA ENKARGUAK	21.749,25

Enkargua urtean zehar bideratuko da.

Guzti hau kontutan hartuta eta 2023ko apirilaren 21ean Ogasun, Kontu Berezien eta Beste Gaiien Batzordeak gaiari buruz emandako aldeko diktamenaren baitan, honako akordioa hartu du Udalbatzak:

Lehena.- 2023an Gestio Plana gauzatu ahal izateko Oartzungo Udala eta Oarsoaldea S.A.ren arteko lankidetzaz hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- 432.057,11 €ko guztizko gastua onartzea, 382.657,73 € gestio planari dagokiona (A/1033-2023); 18.650,13 € Ereiten programari dagokiona (A/1034-2023), 9.000,00 € berpiztu poligonoak programari dagokiona (A/1035-2023) eta 21.749,25 € ASAP programa garatzeari dagokiona (A/1036-2023).

Hirugarrena.- Alkate jaunari ahalmena ematea sinadurarako.

Ondoren botazioa egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzia		

Gaia aho batez onartu da aldeko 15 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- XII -

OIARTZUNGO KULTUR ERAGILEEN SARETZEAK AKTIBATZEKO, KULTUR ERAGILEEN ETA KULTURZALEEN BILGUNEAK OSATZEKO ETA BERAIEK ARTEKO ELKARLANA BIDERATZEKO OIARTZUNGO UDALA ETA KULTURAZ BETE ARTE ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ETA GASTUAREN ONARPENA ETA LEHEN ORDAINKETAREN EBAZPENA.

Kulturaz Bete Arte kultur elkarteak irabazi-asmorik gabeko elkarteak dira, elkartearen erregistroan inskribatuta dagoena. Helburu nagusiak dira kultur eragileen eta kultur-zaleen bilgune izatea eta haien elkarlana bideratzea, kultura eta kultur-zaletasuna bultzatzea, kultur espresioak antolatzea eta bultzatzea, kulturarekiko jarreraz hausnarketa autokritikoa bideratzea eta euskal kulturaren transmisioa sustatzea.

Aipatu helburuak Oartzungo Udalaren euskal kulturaren aldeko eta herriko taldeei laguntzeko irizpidearekin bat eginik, elkarteak 2023an Oartzungo kulturgingintza eredu komunitarioan artikulatzeko proiektua aurkeztu dio Udalari. Proiektua aztertu ondoren, bi erakundeek arteko lankidetzaz hitzarmena sinatzea proposatu du Kultura teknikariak gaiari buruz egindako txostenean.

Espedientean memoria eta idazkariaren aldeko txostena eta kontu-hartzailearen fiskalizazio txostena erantsi dira.

Hori guztia kontutan hartuta eta Kultura Batzordeak 2023ko apirilaren 20an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenaren baitan, honako akordioa hartu du Udalbatzak:

Lehena.- Kulturaz Bete Arte kultur elkarteak eta Oartzungo Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena onartzea, eranskinean jasota dagoen moduan. Hitzarmenaren indarraldia 2023ko abenduaren 31a arte izango da.

Bigarrena.- Hitzarmenaren 3. klausulan jasota dagoen moduan, Oiartzungo Udalak elkarteari 40.000 eurotako dirulaguntza ordainduko dio, beraz, kopuru horri dagokion gastua onartzea. Gastua 2023ko udal aurrekontuko 1 0801.481.334.00.18 2023 diru-atalaren kontura ordainduko da, bi epetan: %80a (32.000.- euro) erabaki hau hartzearekin batera eta gainerako %20a (8.000.- euro) elkarteak gastuak zuritu ondoren, 2024ko urtarrilaren 30a baino lehen.

Hirugarrena.- Alkate jaunari hitzarmen hau formalizatzeko beharrezkoak diren agiriak sinatzeko ahalmena ematea

Ondoren botazioa egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Gaia aho batez onartu da aldeko 15 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- XIII -

SOINUENEA FUNDAZIOA ETA OIARTZUNGO UDALAK SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN MODIFIKAZIOA ONARTZEA ETA DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO ESKAERA EBAZTEA.

Soinuenea fundazioak eta Oiartzungo Udalak 2020ko otsailaren 3an lankidetzahitzarmena sinatu zuten herri musikari buruzko dokumentazio eta ikerketa zentro irekiaren zerbitzuak eskaintzeko.

2023ko apirilaren 18an, 2781 erregistro zenbakiko idatziaren bidez, Fundazioak eskatu du du udalaren dirulaguntza handitzea, honakoak argudiatuz:

- Krisialdi ekonomikoaren eta inflazioaren eraginez, bere horniduretan eta ordaindu beharreko zerbitzuetan jasandako igoera desproporzionatua.
- Pandemiarengatik eta krisialdiarengatik elkartearen aurrekontuaren % 24a den Herri Musika Eskolan jasandako ikasle-matrikularen (eta ondorioz diru-sarreraren) beherakada.
- Burutzen dituen jardueretan sortutako egitasmo eta gastu berriak (sare sozialetako kudeaketa).
- Hitzarmena sinatu zenetik, eguneratu gabe zegoela Udalaren ekarpena eta ez dela kontuan hartua izan KPIren igoera desproporzionatua.

Eskaera eta dokumentazioa aztertuta, Kultura teknikariak bi entitateen arteko hitzarmena modifikatzea proposatzen du, eskaera onartzearen alde.

Espedientean justifikazio-memoria eta idazkariaren txostena ere erantsi dira.

Horrenbestez, Kultura Batzordeak 2023ko apirilaren 21ean egindako bilkuran emandako aldeko diktamenaren baitan, Udalbatzak honako akordioa hartu du:

Lehena.- Soinuenea Fundazioak aurkeztutako eskaera onartzea eta 10.800.- eurotan handitzea Udalaren dirulaguntza 2023an.

Bigarrena.- Hitzarmenaren 3. klausula modifikatzea, gehikuntza jasotze aldera. Horrela, Oiartzungo Udalak Soinuenea Fundazioari guztira 104.100 € ko dirulaguntza ordainduko dio, fundazioak 2023ko bere jarduerak bultzatzeko, udal aurrekontuetako 0801.481.333.00.08 (A 49-2023 eta AD 1085-2023) eta 0801.481.334.00.03 (A 50-2023) partidei egotzita.

Hirugarrena.- Dirulaguntza hau lau epetan ordainduko da (%25a hilabete hauetako bakoitzean: otsailean, maiatzean, abuztuan eta azaroan). 2023ko urtarrilaren 25eko Osoko Bilkurak 93.300 € ko ordainketa onartu zuenez, 10.800 € ko gehikuntza hau maiatzeko, abuztuko eta azaroko ordainketetan gauzatzea.

Laugarrena.- Hitzarmena onartu ondoren, Alkate jauna ahalmentzea dokumentua sinatzeko

Ondoren botazioa egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Gaia aho batez onartu da aldeko 15 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- XIV -

ARAUTUKO GABEKO MUSIKA-IRAKASKUNTZA ELKARLANEAN SUSTATZEKO, OIARTZUNGO UDALA ETA IBARGAIN MUSIKA ESKOLAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ONARTZEA.

Ibargain Musika Eskola titulartasun pribatuko musika eskola da, arautu gabeko irakaskuntza emateko baimena duena, urriaren 27ko 289/1992 Dekretuaren bidez arautua. Helburu nagusia musikaren irakaskuntza Oiartzunen garatzea du.

Oiartzungo Udala beste erakunde publiko eta herriko taldeekin batera elkarlanean aritzen da, hezkuntza eta formakuntza zerbitzuak herritarrei hurbiltzeko, banakako eta taldeen eskubideen alde. Lan horretan Oiartzungo Udala eta Ibargain Musika Eskola elkarlanean aritu dira urteotan.

Covid 19 pandemiaren ondorioek, biztanlegoan emandako jaiotza-tasaren beherakadak eta gizarte hezkuntza-ohituretan emandako aldaketek Ibargain Musika Eskolako ikasle-kopuruaren beherakada eragin dute.

Gauzak horrela, Udalak lankidetzaren hitzarmena beharrezkoa ikusten du, bi erakundeen arteko lankidetzaren arautzeko eta dirulaguntza emateko herritarrei musika eskolak eskaintzen jarraitu ahal izateko eta dagokion dokumentua prestatu du Kultur saileko teknikariak eta hitzarmena sinatzearen aldeko proposamena egin du idatzitako txostenean.

Espedientean idazkariaren txostena ere jaso da.

Guzti hau kontutan hartuta, Kultura Batzordeak 2023ko apirilaren 21ean egindako bilkuran emandako aldeko diktamenaren baitan, Udalbatzak honako akordioa hartu du:

Lehena.- Oiartzungo Udala eta Ibagain Musika eskolaren arteko hitzarmena, eranskina jasota dagoen moduan, onartzea, honako xehetasunekin:

Helburua: Oiartzuarrei musika-irakaskuntza zerbitzuak eskaintzea.

Diru-atala: 0801.480.334.00.03 aurrekontuko diru-atalaren kontura.

Indarraldia: 2023ko abenduaren 31a arte egongo da indarrean.

Ordainketa-egutegia: ikasturteko aurreikuspenekin, abuztuaren %40a; dirulaguntza jasotzen den ikasturteko urtarrilaren %40a (behin betiko matrikulazio-datuekin doitu da kopurua, mantenu-gastuak barne); ikasturtea amaitutakoan zuriaketa aurkeztean gainerako %20a.

Bigarrena.- Hitzarmena onartu ondoren, Alkate jaunari ahalmena ematea dokumentuen sinadurarako

Ondoren botazioa egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	14	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa	1	Rafael Bergaretxe jna.

Gaia onartu egin da aldeko 14 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV) eta abstentzio batekin (Rafael Bergaretxe jna.)

- XV -

2023 EKITALDIKO 3. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA.

Oiartzungo Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea aurkeztu du onarpenerako kontu-hartzaileak, 2023 ekitaldiko hirugarrena, hain zuzen ere.

Gaiari buruz egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. eta Udal Entitateen Aurrekontu Erregelamendua onesten duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuaren 40. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun, Kontu Berezien eta beste Gaiaren Batzordeak, 2023ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, aldeko diktamena eman dio onespenerari.

Guzti hau kontutan hartuta, Udal Osoko Batzarrak honako akordioa hartu du:

Lehena.- Oiartzungo Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kap.	Izena	€uroak
1	Pertsonal gastuak	264.000,00 €
2	Gastu arruntak	407.678,19 €
4	Transferentzia arruntak	74.242,29 €
6	Inbertsio errealak	2.266.236,47 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		3.012.156,95 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kap.	Izena	€uroak
3	Tasak eta bestelako sarrerak	12.183,41 €
8	Aktibo finantzarioak	2.999.973,54 €
KREDITU TXERTAKETAK GUZTIRA		3.012.156,95 €

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea, 15 eguneko epeaz, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio

Ondoren botazioa egin da:

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Gaia aho batez onartu da aldeko 15 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- XVI -

BESTE UDAL ORGANO BATZUEN JARRAIPENA: HARTUTAKO ERABAKIEN (ALKATETZAREN EBAZPENA ETA GOBERNU BATZORDEKO AKORDIOAK), PROTOKOLO GASTUEN, 2. KREDITU ALDAKETAREN ONARPENAREN ETA 2023KO LEHEN HIRUHILEKOARI DAGOKION AURREKONTUAREN EXEKUZIOAREN, AURREKONTUZ KANPOKO MUGIMENDUEN ETA DIRUZAINTZAREN EGOERAREN BERRI EMATEA.

- Hartutako **erabakiak**:

Alkatearen ebazpenak:

2023ko martxoaren 25etik 2023ko apirilaren 21a arte.

Zk. 2023/479tik 2023/596a arte.

Tokiko Gobernu Batzarrak:

2023ko apirilaren 11 eta 25ean egindako ohiko bilkurak.

- Protokolo eta ordezkapen **gastuak eta dietak**:

2023ko apirila:

Ikurriñak, garaikurrak, plakak, opariak,...	79,50 €
Inprenta, diseinua, web orria:	60,50 €
GUZTIRA:	140,00 €

- 2023ko lehen hiruhilekoari dagokion **aurrekontuaren exekuzioaren**, aurrekontuz kanpoko mugimenduen eta diruzaintzaren egoeraren berri ematea:

2023ko udal aurrekontuen urtarrila-martxoa hilabeteetako exekuzioaren berri ematen da, eranskin modura aurkezten den dokumentuaren bidez. Halaber, 2022ko diruzaintza planaren exekuzioa, diruzaintza kontua, diru-fluxuen egoera-orria eta aurrekontuzkoak ez diren kontuak dokumentuak ere aurkezten zaizkio Udalbatzari. Gogorarazten da uneoro agiriok kontu-hartzaitzako bulegoetan egongo direla eta web orrian ere zintzilikatuko direla edonork ikusteko.

- 2023 ekitaldiko 2. kreditu aldaketaren berri ematen da, txertaketa bidez onartutakoa, 2023ko martxoaren 3ko 336 zenbakiko Alkatearen ebazpenaren baitan. Honela dio:

“DEKRETUA

Aurreko urteko Aurrekontuko kreditu gerakinak txertatu izanaren ondorioz Oiarzungo Udalaren 2023ko aurrekontuan izapidetutako kreditu aldaketarako espedientea aztertu dugu.

Espedientean dauden Kontu-hartzailearen txostenak kontutan hartuta eta 21/2003 Foru Arauak 32. artikuluan eta 96/1992 Foru dekretuak 38. artikuluan kreditu txertaketa onesteko ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT

Lehenik.- Aurreko ekitaldiko Aurrekontuko kreditu gerakinak Oiarzungo Udalaren 2023ko Aurrekontuan txertatu izanaren ondorioz kredituak aldatzeko 2 zk.ko espedientea onestea, aipatu txertaketak hartzen dituen kapituluaren laburpen honen arabera:

GASTUAK-GEHIKUNTZAK

Kap.	Izena	€uroak
2	Gastu Arruntak	248.066,98
4	Transferentzia Arruntak	197.032,11
6	Inbertsio Errealak	3.657.338,46
7	Kapitalezko Transferentziak	266.495,22
TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA		4.368.932,77 €

SARRERAK-FINANTZAKETA

Kap.	Izena	€uroak
4	Transferentzia Arruntak	8.327,66 €
8	Aktibo Finantzarioak	4.360.605,11 €
KREDITU TXERTAKETAK GUZTIRA		4.368.932,77 €



Bigarren.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako aldaketa Fondoan Kontu-hartzaitza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin islatzea, gastuetan zein sarreretan.

Alkate udalburu jaunak agintzen eta sinatzen du.”

- XVII -

ESKARI-GALDERAK

Ez zen eskaririk ez eta galderarik egin

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 18:39ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritik Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea

Idazkaria